

COVID-19 NEWSLETTER

Italia 2020/06/03



INPAKTU EKONOMIKOA

Makro datuak

<p>2020ko BPGaren bilakaeraren aurreikuspena bigarren hiruhilekoan % -9 (urteko batez bestekoa: % -9,6)</p>	<p>Enpresen inbertsio gordinen aurreikuspena 2020an % -15,5 (Familien kontsumoaren aurreikuspena 2020an: % -9,9)</p>
<p>Zerbitzuetako eta Industriako PMI indizea apirilean 28,9 / 45,4</p>	<p>Langabezia apirilean % 6,3 (Kalkulatu da okupazioak % -7,6ko beherakada izango duela 2020an)</p>

Inpaktua sektore industrialetan

- Metalurgia**
 Metalurgia sektoreko enpresek maiatzaren 4an berrekin zioten beren jarduerari, bi hilabeteko geldialdiaren ondoren. Nola produkzioaren % 93 etenda egon den, esportazioak % 80 jaitsi dira
- Automozioa**
 Bi hilabetez jarduera geldirik egon ondoren, automozio sektorea apirilaren 27an hasi zen berriro lanean. Maiatzean matrikulazioak % 49,6 gutxitu dira 2019ko hilabete berarekin alderatuta. Fiat Chrysler Automobiles-ek izan du automobilaren merkatuko beherakada handiena, % 57,2koa
- Energia**
 Funtsezko jarduera denez, energia-sistema bermatuta dago hornidura ez dadin eten
- Industria farmazeutikoa eta bioteknologia**
 Errendimendu betean ari da lanean, eta bioteknologiako enpresa asko ari dira birusa aztertzen, eta diagnostikoak, tratamenduak eta txertoak garatzen

Inpaktua zerbitzuetan

- Ostalaritza**
 Kalkulatu da 9.000 milioi euro inguruko galerak izango direla. Taberna eta jatetxeak zabalik daude publikoarentzat maiatzaren 18tik
- Aireko garraioa**
 Newco publiko bat sortu da Alitaliarentzat eta 600 milioi euroko funts bat eratu da sektorerako
- Turismoa**
 Kalkulatu da sektoreak 66.000 milioi eurotik gorako galerak izan ditzakeela 2020an zehar



Inpaktua finantza sektorean

- ❖ Merkatuak: Ftse Mib indizea % -27,5ekoa izan da 2020ko lehen hiruhilekoan, 1998tik gertatu den jaitsiera handiena da



EUSTE-NEURRI EKONOMIKOAK

Neurri garrantzitsuenak 2020ko martxoaren 16ko “Cura Italia” dekretuan daude jasota. Hor aurreikusten da **25.000 milioi euroko injekzio ekonomikoa egingo dela eta 350.000 milioi euro mobilizatuko direla**. Horrez gain, 2020ko apirilaren 6ko “Liquidità” dekretuak **400.000 milioi eurorainoko zirkulazioa aktibatzen du enpresentzako kredituen bidez, Estatuak bermatuko duelarik kopuru horren % 90a** eta 2020ko maiatzaren 19ko “Decreto di Recupero” dekretuak bere baitan hartzen du **55.000 milioi euroko laguntza-plan bat** familientzat, enpresentzat, osasun sistemarentzat eta I+G-arentzat



Neurri fiskalak

- ❖ 2 milioi euro baino gutxiagoko fakturazioa duten enpresa, autonomo eta profesionalek etenda dituzte martxoko zerga eta kontribuzio arloetako betebeharrak, eta jatorrizko atxikipen guztiak ekainaren 31ra arte atzeratu dira
- ❖ 50 milioi euro baino gutxiagoko fakturazioa duten autonomo eta enpresek etenda dituzte apirilko eta maiatzeko zerga eta kontribuzio arloetako betebeharrak, baldin eta fakturazioa % 33 gutxitu bada. Neurri bera aplikatzen zaie 50 milioi eurotik gorako negozio-bolumena duten enpresei, baldin eta fakturazioaren jaitziera % 50ekoa izan bada
- ❖ 250 milioi euro baino gutxiagoko negozio-bolumena duten enpresek ez dute ordaindu beharko jarduera ekonomikoen gaineko eskualdeko zergaren kuota ekainean
- ❖ Apirilean, maiatzean eta ekainean alokairuaren % 60ko kreditu fiskalak emango dira lokal komertzial, bulego eta tailerrentzat




Finantzaketa pribatua eskuratzea (erakundeak eta beste batzuk)

- ❖ ETEentzako berme-funtsa zabaldu da, eta neurriak hartu dira kreditu narriatuak ematen laguntzeko
- ❖ 400.000 milioi euroko bermeak eman dira, Estatuak mota guztietako enpresentzat (beren fakturazioa kontuan hartu gabe) bermatuko dituen % 90erainoko maileguetarako
- ❖ Estatuak erabateko abala emango die autonomoei, zeintzuek 25.000 euroko berehalako eta ebaluazio gabeko kredituak eskatu ahal izango baitituzte
- ❖ ETEek bost milioi eurorainoko maileguak eskatu ahal izango dituzte



Dirulaguntzak eta mailegu publikoak

- ❖ ETEen maileguen hileroko kuoten ordainketak eten egin dira 2020ko irailaren 30era arte
- ❖ Zailtasun ekonomikoak dituztenek (autonomoak barne) etenda dituzte lehenengo bizilekuaren gaineko hipotekaren hileroko kuotak 9 hilabetez
- ❖ 1.000 eta 62.000 euro bitarteko itzuli beharrik gabeko ekarpena 5 milioi euro baino gutxiagoko negozio-bolumena duten eta apirilean gutxienez % 33ko galerak jasan dituzten enpresentzat
- ❖ Hileko 600 euroko bonuak martxoan eta apirilean, eta 1.000 eurokoak maiatzean, fakturazioa % 33 murriztu duten autonomoentzat
- ❖ 500 eurorainoko bonua herrialde barruan oporretara joateko
- ❖ 600 eurorainoko bonua hartzainak kontratatzeke. Osasun arloko langileen edo segurtasun indarren kasuan 2.000 eurorainokoa izan liteke



Lan-indarra

- ❖ Ezingo da inor kaleratu urrira arte
- ❖ Gobernuak "Covid-19agatiko larrialdia" sartu du ABEEak tramitzeko arrazoiaren artean
- ❖ 18 astez ABEEan egoteko aukera: 14 aste otsailaren 23tik abuztuaren 31ra eta 4 aste irailaren 1etik urriaren 31ra. Gobernuak 15.000 milioi euroko funts bat sortu du ABEEak finantzatzeko
- ❖ Osasun arloko 20.000 langile kontratatuko dira
- ❖ Nekazaritzan eta etxeko langile gisa lan egiten duten 250.000 etorkin inguru erregularizatu dira



NEURRIAK ARINTZEKO EGUTEGIA

2020ko apirilaren 26ko dekretuak 2. faseko jarraibideak ezartzen ditu, jarduerak gradualki eta progresiboki berreskuratzeko. Normaltasun berrirako itzuleran zorrotz bete beharko dira segurtasun eta higie protokoloak, eta hauxe izango da horretarako egutegia:

- ❖ **Apirilak 27:** irekiko dira nagusiki esportazio sektorerako zuzendutako jarduerak dituzten manufaktura enpresak, eta orobat eraikuntza publikoaren sektorekoak
- ❖ **Maiatzak 4:** manufaktura eta eraikuntza sektoreetako jarduera osoa berraktibatuko da; bi sektore horiekin lotutako handizkako merkataritza ere irekiko da; eta taberna eta jatetxeak ere bai, baina soilik janaria etxeetara eramateko
- ❖ **Maiatzak 18:** txikizkako merkataritza, museoak, erakusketa-aretoak eta liburutegiak irekiko dira

2020ko maiatzaren 16ko 33. dekretuak 2b fasearen (neurriak arintzeko fasearen) egutegia ezartzen du:

- ❖ **Maiatzak 18:** egun horretan irekiko dira tabernak, jatetxeak eta irudiaren zaintzarako zerbitzu pertsonalak eskaintzen dituzten establezimenduak, hala nola ile-apaindegiak eta edertasun zentroak, bai eta hondartzetako establezimenduak
- ❖ **Maiatzak 20:** auto-eskolak irekiko dira
- ❖ **Maiatzak 25:** gimnasioak, igerilekuak eta kirol zentroak irekiko dira
- ❖ **Ekainak 15:** zinemak eta antzokiak irekiko dira eta udako kanpaldiak antolatu ahal izango dira



MUGAK

Zerbitzu logistikoak eta barneko garraioa

- ✔ ❖ Krisi sanitarioak iraun duen bitartean, gobernuak ez dio inolako mugarik jarri merkatu-gaien garraioari herrialde osoan
- ⬇ ❖ Krisi sanitarioak iraun duen bitartean, gobernuak gutxieneko zerbitzuak bermatu ditu lurreko, aireko eta itsasoko garraio-sareetan, eta eskumenak eman dizkie eskualdeetako presidenteei tokiko garraio publikoak murriztu edo aldatzeko
- ❖ 23 aireportu operatibo daude Italian ekainaren 3tik

Biztanleriaren mugikortasuna

- ⊕ ❖ Ekainaren 3tik aurrera posible da herrialde osoan libreki mugitzea eta atzerrira bidaiatzea
- ❖ Gutxienez metro bateko distantzia fisikoa mantendu behar da, eta derrigorrezkoa da maskarak erabiltzea garraio publikoan eta espazio publiko itxietan (saltokiak, tabernak, jatetxeak, e.a.) eta espazio irekietan ere bai, baldin eta ezin bada errespetatu segurtasun-distantzia
- ❖ 37,5 gradu edo gehiago dituzten pertsonak isolatuta egon beharko dute

Mugetako egoera

- ❖ Ekainaren 3an, Italiak mugetako murrizketak kendu ditu, hau da, Europar Batasuneko eta Schengen espazioko herrialdeetatik, Erresuma Batutik, Andorra eta Monako Printzerrietatik, San Marino Errepublikatik eta Vaticano Hiritik Italiara datozen bidaiariek ez dute adierazpen bat aurkeztu beharrik ez eta 14 eguneko berrogeialdirik egin beharrik
- ❖ Aurreko puntuan adierazitakoak ez diren beste jomuga batzuetatik iristen diren bidaiariek bidaiaren arrazoia azaltzen duen adierazpen bat aurkeztu behar dute; orobat adieraziko dute egoitzaren/hotelaren helbidea eta telefono zenbaki bat, eta, horrezaz gain, 14 eguneko berrogeialdia egin behar dute